

ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

205n. zenbakia
epailla/martia 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AITA SANTI ONAINDIA BASETA
(+ 1996-2-11)
(EUSKERAZAINZAKOA)

- LEKAIDE KARMELDARRA
- BENETAKO ABERTZALEA
- EUSKAL ELERTIAREN AZTERTZAILEA
- PUNTERENGO OLERKARIA
- ITZULTZAILE TREBEA
- EUSKAL-ZALEEN ADORE-EMOILLEA
- LIBURU TA ALDIZKARIETAN IDAZLE UGARIA
(G.B.)

EUPP!! AITA SANTI

Zelan aspaldiko?

Gaur iluntzean, nire ileroko betebearra egiten asi aurretotik, egunkaria irakurtzerakoan (badakit bearbada goizean egin bearreko gauza bat dala baina presaka bizi ganonok...) zure izenak emon deust begira. Non eta inoiz ikusteko gogorik euki ez dodan lekuan, ildakoan artean.

Biotza saltoka jarri jat eta begiak biraka, ikusten nebana ezin sinistu, edo obeto esanda, ez sinistu izan gura.

Idazteko gogoia joan egin jat, idatz-makina amatatu eta beste ezer egiteko gogo barik geratu naz.

Berandu izan danez, eta barri onen barririk ez dodanez jaso, azken agurra egitera joateko erarik ere ez dot euki.

Nire leenengo pentsamendua zera izan da: Aita Santi joan jaku, eta aide batetik Jainkoaren zoriontasuna gozatzen egongo zaren itxaropenak bete banau kristau-moduan, beste aldetik tristura ere nitaz jabetu da euskalzale eta bizkaierazale moduan.

Gatx egin jat zure idaztirik ez ikustea aspaldiko aleetan, baina sailago egiten jat emendik aurrera ez dodala ikusiko jakitea, naiz eta bizitzaren legeak orrela izan bear dauala ulertu.

Oraindino gogoan daukat bertsolaritzari buruzko itzaldi bat emotera gure errira etorri zinanekoa. Iturri anaiekaz batera, zuk teoria eta eurak praktika jarrita, ederra iruditu jakun ia aurtzarotik urten barri gengoan gazteoi.

Egun aretatik beste gauza bi ere gogoratzen dodaz: Gogoratzen zara afaltzera joan eta gertatu jatzuna? Maian jesarri eta naiko berandu ere bazanez, janaria ekarri bezain lasterjateari ekin zeuntsan. Orduan, eta koilareak aorako bide erdia eginda eukala, Iturri gazteak, besteoi begi-keinua eginez (bertsolaria erdi lukia ez bada, ez da bertsolaria), "Aitaren" egin eban, maia bedeinketu barik jaten asi zinela gogoratzeko. Maian jesarrita egoan eleiz gizona zeu izan, eta zeuri aaztu mala bedeinkatzea, alakorik!

Bestea Larrea'rako bidean ginoiazala gertatu jakun. Gaba zan eta euri sirimiria egin ebanez, bidea naiko labankor egoan.

Baina gaztaroa zoroa da eta orduan gaurko beste ez nebenez neurtzen autoaren abiadura, alako burde batean autoak zirrist egin eban. Apur bategaitik danok goaz zagozan lekura sasoi bano leen!

Zuk, zeure maisutasuna erakutsiz, niri errua bota bearrean bideari eta euriari bota zeuntsan, kontuz ibili bearreko bideak zirela esanaz gero.



An, or eta emen bizkaierak bere defendatzaile sutsuenetariko bat galdu dauala dinogu gure artean, eta ez dira falta izango bizi izan zarenean geziak eta arriak jaurtitzen egon jatzuzanak orain euskerazko olerkaritzak eta euskaltzale munduak gizon aundi bat galdu dabela esaten dabena.

Zer egingo dogu? danetari-koak egon bear dau Lurrean Jaunaren legea bete daltan!!

Ile onetan, orain pare bat ale idatzi nebanari jarraitzeko asmoa neukan, baina gaur arratsaldean bertan, izparringiko alkarrizketa baten irakurri dodanak sutu egin nau eta erantzuteko gogoia emon deust.

Zure eriotzaren barriak mantsotu egin nau (eriotzak sutsuenak, bizkorrenak eta gogorrenak ere mantsotu egiten dauz).

Azkenean zera pentsatu dot: obeto lagun bateri eskutitz bat idatzi ezezagun bateri asarrezko lau lerro idatzi baino. Eta emen naukazu.

Badakizu zer esaten izan dauan alkarrizketan? Bizkaieraz edo beste euskalkiren baten idaztea ez dala zuzena gramatika aldetik! Nork eta Euskaltzaindiako partaide batek gainera!

Inori ez el jako otutzen erderaz idazterakoan andaluzez, edo extremeñoiz idaztea, beraz, euskeraz ere batuatik kanpo idaztea gramatika aldetik txarto el dago.

Ederra bota deusku txolin onek!

Orduan, oneri kasu egiten badeutsagu, zure idatzi guztiak akats gramatikalez beterik dagoz. Bai zera! Eta on esan dauana, bearbada, ez da goragotxoago aipatu dodazenetik urrun egongo.

Itzi daigun gaia albo batera, agur esaterakoan ez zaitut tristetu ez asarratu gura-eta.

Gurago dot ortik goitik lantzean bein laguntza apur bat bialtzea gure arima eta izkuntzarentzat.

Bai batarentzat eta bai bestearentzat elduko jakulakoan agurtu bearrean aurkitzen naz, Martinek niretzat daukan lekua orainezkero irunsi dot eta.

Ba, beste barik, jarraitu ortik ere gure euskera eta Euskal Erriaren aide, bizi izan zaran artean egin dozunez. Gainera ziur nago, zeruan euskerarik egiten bada, emendik aurrera Jaungoikoak berak ere bizkaieraz egingo dauana.

Enrike Itxasalde

ARGIUNEAK

Bizkai'ko lutelestiari begiratuta, sartaldera, zati aundi aundi bat oso erdalduna arkitzen dogu, Nerbion ibai ondorik asita, Burgos'ko mugaraño dijoana, Karrantza barrena.

Bizkaia, bi taldetan dagola zatituta, bat oso euskalduna, bestea berriz era bat erdalduna esango genuke. Euskal zatia Bermeo, Ondarru, Markina inguruan biltzen zaigu; euskal idazle onez josita agertzen da.

Beste aldetik, sartaldeko erdal adar luze ori, euskal kulturarentzat basamortu gorri, illun eta luze bat bezala azaltzen da.

Eredu bat ar dezagun; ikastolak. Ikastoleen Federazioaren mapetan auxe ikusten dugu: Nerbion ibai ezker aldetik, ur bazterrean, ikastoleekin irien errenka luzea: Bilbao, Zornoza, Barakaldo, Trapaga, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Abanto-Zierbana, Muskiz. Adar luze ortan berriz Sodupe ta Balmaseda. Mapa ortan, sartaldeko zati ortan, ori aundiak ikastolik gabe agertzen zaizkigu: Galdames, Sopusuerta, Zalla, Karrantza, Urduña eta abar.

Beste zerbait esango genuke: Bizkai'ko euskal idazleetan, adar onetako gaiak eta abertzaleak gutxitan aipatuak daude. Or, ere, basamortua nabarmentzen da. Bizkai'ko euskal idazleen belarriak lurralde zabal eta eder oietaruntz irikiak ez daudela dirudi.

Gure asmoa garbia da: Biarko egunean, Bizkai'ko edertasunik aundiena ez dala izango GUGEMHEIM delako artezko etxe berri egokia, euskara eder on baizik, errikoa esan nai dugu.

Bizkai'ko dirurik ederrenak, bide ortik joan bear Luke: adar luze ortan euskara sortzen, azitzen eta loratzen. Bide ortik idazleak, batez ere Bizkai'tarrak aurrera jo dezakete.

Nola? Lendabizi lur zabal ori oñez ondo zanpatuz. Gu baño bertago bizi dire, gañera toki oiek, itsas bazterretako idazle askok ez dituzte ezagutzen. Ez dire bein ere izan. Noizbait egin bearo lukete ibillialdi zoragarri ori.

An barrenean sartu bearra dago ta barrendik asita euskal deia dutenak arkitu, egitazko bitxiak bezala erabilli, ango berriak euskaraz eman eta oneruntz zabaldu: gai orretaz asko idatzi, angoko gizasemeak agertu, zenbat arduratzen diren lur aietaz azaldu.

Lendabizi asko erein bearra dago. Ori dena idazleen lana da. Ortarako, urregorriarekin, idazlan batzuek saritu bear lituzkete. Bai, idazlan onak sana merezi luke. Egin ad dezakete lan obegorik Bizkaia'n?

Adar luze ortan euskera pixtutzen dela, Bizkaia ederra goa ta aundiagoa osatzen dute.

LATXAGA

IPUIN SARIKETA

Euskerazaleak Alkarteak izendatu dauan Ipuin-Sariketarako maikoak euren batzarra egin dabe 1996'ko otsailaren 1.º egunean, eta Sariketara aurkeztu diran ipuin guztiak aztertu ondoren, auxe izan da artu daben erabagia:

1.º SARIA

"Gerra zitata" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Goikoetxea 'tar Iñaki.

2n. SARIA

"Pedrotxo Ternuan" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Arrinda'tar Anes

3n. SARIA

"Tobias kapeladuna" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Zubikarai'tar Augustin

4n. SARIA

"Negar egiten ehan" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Legarreta'tar Asier

Zoriona irabazleai, esker ona beste guztiai eta urrengoan be idatzi:

MAIKOAK

AITA SANTI, ADISKIDE TALANKIDE, AGUR!

ALKARTUTA

Gure bizitzan era askotara izaten dogu alkartasuna lortzea.

Batzutan elburu bardiña izaten dira alkartzen gaituenak eta beste askotan elburu orreik lortzeko egin bear doguzan alkar-lanak eta alegiñak.

Ortik sortzen jaku alkar maitasuna eta maitasun on berotuz joaten da gure bizitzan.

Aita Santi'k eta guk elburu bi izan doguz bardiñak: Euskerearen bidez Euskalerrria argitu, sendotu ta bizkor-tu eta jokabide on Kristo'gan daukagun sinismenak era-ginda artu.

Euskerearen eta Euskalerrriaren maitasunak ekintze-tara eroan gaitu eta or bitzuok bide bardiña artu dogu: Bizkai'ko euskerea eta betiko idazkerea, atxerik bear ez dauana, artu.

Eta bide orretan gure sinismenak berotu ta sendotu gaitu. Sinismena laguntza izan dogu ekintzak egokiro bideratzeko.

EUSKERAZAINTZAREN BARRUAN

Lenagotik gengozan Aita Santi eta gu alkartuta, bai-ña gure aspaldiko lokarri EUSKERAZAINTZA izan dogu: Illero alkartu gara Deba'ko parrokiaren geletan.

Beti ametsez beterik eta pozik joan gara batzar areta-ra. Gai sakon eta garrantzizkoak aztertu doguz batzarre-tan eta ez gitxiago senitarteko bazkarian, Anes lanki-dearen etxean. Eskerrak emon-bearrean gagoz etxe are-tako sukaldariak eta erri aretako parrokiari.

Benetan argi ikusi dogu berak eta batzar aretara joa-ten garanok, zar eta gazte, ez dala egokia euskerearen-tzat, kaltegarria dala, Euskaltzaindiak artu dauan "Batua"ren bidea, kaltegarria euskerearentzat alperre-koa dan atxea eta Bizkai'ko gure euskerea alboratua izatearen samintasunak geiago alkartu gaitu.

Zer egin egoera larri onetan? Lan eta lan, idatzi eta idatzi, geure eritziak zabaldu eta beti aldeztu, aurrera jarraitu. Orretan ekin eban Aita Santi gure adiskide eta lankideak al izan dauan artean. 60 liburu eta 600 idaz-lan aldizkarietan ei dira bereak.

t

**AITA SANTI
ONAINDIA BAS ETA**
(KARMELDAR ERLIJIOSOA)
(Golan bego)

Atzo il zan, 1996eko otsailaren 11an. 86 urte ebazala Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa artu ondoren

Euskal Herriko Karmeldarren Eliz Probintziako Nagusia, Larreako Aita Karmeldarren Komunitateak; bere arreba, Mari; loba eta beste senideak.

Bere arimaren aide OTOITZ egin eta GAUR, astelena, illak 12, arratsaldeko SEIRETAN, ZORNOTZAKO Larreako Jon Batea tzailea Deunaren parrokiari izango diran illeta-elizkun eta gorpuaurreango mezatara Joan zaitezela eskatuten deusue. Aldeaurrez, mila esker.

Zuzenbidea: Larreako Komentua, 2. ZORNOTZA
(I. z. eta Tanatorioa: Larraz, s. L. Tell 673 06 23 Zornotza)

t

**Onaindia ta Bazeta
tar Jagoba (Ar Santi)**
(Euskerazaintzakoa
(Karmeldarra)
(Golan bego)

Gasteizko Karmeldarren lekaide-etxean il zan alzo arratxal-deko ordu bi ta erdietan, 86 urtekoa zala

Euskerazaintza euskerearen erri-akademiak

bere aide OTOITZ egin eta GAUR, arratxaldean.. SEIRETAN Larreako Karmeldarren lekaide-etxean izango dan illetara dei egiten dautzue Aurretiaz eskerrik asko.

**ONAINDIA TA BAZETA'TAR
JAGOBA ((AITA SANTI »
(EUSKERAZAINTZAKOA)
(KARMELDARRA)
(Golan bego)**

Gasteizko karmeldarren lekaide-etxean il zan arratsaldeko ordu bi ta erdietan, 86 urtekoa zala

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN

Bere aide OTOITZ egin eta GAUR arratsaldean, 6'retan Larra'ko Karmeldarren lekaide-etxean izango dan illetara dei egiten dautzue. Aurretiaz eskerrik asko.

OROIGARRI **BATZUK**



Omenaldietara pozik joaten zan aita Santi. Argazki onetan Zeanuri 'n gagoz Gabirel Manterola'ri omenaldian. Erdian Ander Mantero/a ta Alkatea, ezkerrean, Pedro Zelaia, eibartarra ta abadea.



Mungia 'n, Paulin Solozabal 'eri egindako omenaldian. Katxabea eskuan dauala, Paulin bere ondoan eta Manu Oñatibia eskumaldian. Alboan bertsolarien puntu-jartzaile ezaguna dan Bernar.



Aña Lino'ri Dima here errian geuntsan omenaldian. Santi'ren ondoan Urretxindorra " re n alabea, Edurne, Lino' ren ondoan Aita Luis karmeldarra. Lino ta bera txikitatik ziran adiskide, lankide eta lekaidekide. Ez ziran bardiñak. Lino zorrotzagoa zan, Santi, ostera, ugariagoa.

DIRUTZAK **ELTZEN** DIRA?

Baña... dirutzok eldu egiten ete dira?

Azken lau urteotan Zuzendaritza onen ardura dot, eta benetan esan neike proiektu guztiak ia % 100ean egon dagozan tokian bertan aztertzen dituen Erakunde bakarra garala.

Eta egin, azterketa oso sakonak egiten ditugula, batzutan, txarto doazela ikusi ezker, emondako dirutzak eta bere interesak itzultzeraz beartu diru artzaileak.

Beraz, emoten diren laguntzak eldu egiten dira eta aurretiz zeaztutako asmoetarako erabiltzen dira geienbat.

Egia da proiektu oneek aurrera eragiteko gastu batzuk egin bear dirana, eta onetarako Jaurlaritzak emon egiten dituen laguntzetatik %6a inguru artzen dabe proiektu-aurkezleak. Beste guztia Irugarren Mundurako da.



Alkarterako eziketa (Caracas).

ZERGAITIK **AINBESTE** LAGUNTZA

Kezka au argitu ondoren, erritar askok beste itaun au be egiten dabe: zergaitik eskeintzen dira ainbesteko laguntzak Erri onetan ainbeste arazo izanda? Itaun oso lojikoak gure Erriaren kondaira kontutan artzen ez bada.



Lanbide-ikastegia (Ekuador'en).

Gogoratzea baño ez dago zelan oraindik urte gitxi, gure azken guda urteetan, ia 40.000 ume euskaldun doan artu ebezan Europako familia askok; zelan ia 200.000 pertsonak aide egin bear izan eben Ameriketarantz; zelan guda osteo urteetan Erri onek ainbeste laguntza artu ebazan, eta abar, eta abar.

MUNDUKO **ERRIEN** ARTEAN

Bestalde, gogoratu egin bearco genduke Erri onek bere elburuak dituen Nazioarteko Erakunde artean beste edozein erri lez parte artzeko. Asmo onekin, Euskadik bete egin nai dau ONUk munduko Estatuak eskatzen deusien bere Barne Produktu Gordinaren %0,7a Irugarren Munduaren aide eskeintzeko.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak beste Estatuak daben betebe-berbera bete nai dau.

Egia esan, ONUren eskakizunetik urrun xamar gagoz: gure PIBen (Barne Produktuaren) %0,7a ia 27.000 milloia dira, eta Gobernu-Itzarmenean erabagitakoaren arabera, Legaldi onen azkenengo urtean 4.500 milloitaraz baño ez gara elduko.

Ala eta guztiz be, ezin da ukatu Euskalerriak —bai Erakunde Publikoak eta bai erritarrak— dauan Hirugarren Munduarekiko jarrera zintzoa.

JOSU LEGARRETA BILBAO



IZAKI ILLA
(Igartutako arbola baten argazkiaren aurrean).

Bizirik itzan
hide errezetik
bidea ebillan...

Bapo bazkaldu ondoren, or doiazak
Oto, Pototo eta On Permin kafetxo bat ar-
tzera.

— Nun zan ori?

Errioxa aldean. Bero ere badago eta
euliak dabilta multsoka aidean.

— Ortik sortuko zan a, erderazko esaera
"en boca cerrada no entran moscas".



EL PG?CRiTü SA lu t~ rL6G6 d
 ~ PR11itEROS oBi.SfbS E:!.i
 FORMA DE 1.CAGti'6' DE R1eG0.
 Y FcJIERTf) E-keiaNDiElypD
 tA FE- DE SUS CDM(1MCriDeg A £4-
 Vt,S' DE Stó L5Na)As' CAsTEU,óu⁶t,
 CATAtAIJA₁ O OM...

NAZARET'EKO JESUS, KRISTO SALBATZAILLE

- Jakiña, Gabonetan Jesus'en Jaiotzak.
- Jainkoa gurekin izateak alaitzen gaitu.
 Jainkoa aundia izateko, txikitxoak dirudi.
 Txiki orretan ezagutzen dogu Jainkoa'ren guganako maitasun aundia.
- Maitasun ori Gabonetan ikusten dogu; gero, berriz, Garizuman, aren asarrea...
 - Orretan, larritxo.
 - Badirudi Jainkoa eiztari bat dala.
 - Zer diñozu?
 - Zenbaitzuen aotik irtendako berbak, orixen agertarazten eben.
 - Nolan, baña?
 - Bazirudien Jainkoak eskopetia kargauta eukala, gu pekatuan atrapatuko.
 - Ori ez da Jainkoa'ren benetako aurpegia.
 Zer da ba, orduan?
 - Jainkoa'k gizon egitea erabaki ebanean, salbatzaille asmoak eukezan.
 - Bai, Gabonetan, bai.
 - Edozein garaietan. Jainkoa gizon egin ba'da eta gurutzera igo, ez dau orrelakorik egin berak sortutako gizakia ezabatzeko, beste zer-edo-zertako baizik.
 - Bai, gu salbatzeko eta on zer da?
 - Okerkeritik atara eta oien ondoretatik askatzea. Jainkoa'k gizakia here irudiko egin eban, ezaguera eta aukeratzeko aalmena emonaz. Eta, zer gertatu da? Asiera-asieratik gizakiak oker erabilli dauz here aalmen onek, oker-bidetik abiatuz.
 - Adam'ek, bai.
 - Amen Adam asko dagoz eta oker oietatik gaitz asko sortzen dira mundu onetan, lenago bezela orain be bai... Millaka milloio ostuten dabezenak, zenbateri egiten deutse kalte... Drogaren bizkarretik aberasten diranak, zenbaiten malkoz zikindutako diruak jasotzen dabez... Batzuen okerkerietatik zenbat negar, zenbat odol ixurtze...!



- Jainkoa lo egon zan gizonari askatasuna emotean. Frakaso utsa.
- Frakaso orren ederra, Jainkoa'ren konponketa da: Gizon egin, gizakiaren burua artun, okerkeri guztien ordañiak emon, zuzentasuna sortuz eta here seme-alabak egin, eta aizkenean, okerkeri eta guzti, gizaki ori betiko salbamenera eraman eriotza berbera gainduz eta mundo onetan bertan, biotzak lasaitu, noraezetik atara, itsaropena emon eta maitasunez inguruak igurtzi...

EGITEN DAN NEURRIAN

- Esagutzen dok Praisku kamiñerua?
- Bai, gizona; atxur bategaz bide-baztarrian ebillena.
- Lanean ala denbora pasa, asma ezin zertan.
- Bai, eta zer?
- Lengo batez Txomin abarkagilleak albotik:
- Zer, Praisku, lan asko egiten al da?
- Ba! Ordaintzen dabena-gaitik...
- Gutxi ordaintzen al dabe?
- Ba! Egiten dogun lanagaitik...



JAIOTZA BERRIAK

- Lengo Jaiotza txiki oien ondoren, ederra egin dabe Gipuzkoa'ko erri batean...
- Zer jaiotza berri?
- Zeruak eta lurrak, Mari eta sorginkeri gurtiak alkartu dabez...
- Jesus'ena galtzeko, ala zer?
- Ez, bestela; agertzeko geuk ere badogula "jaiokera" bat.
- Danok dakigu erri zaar bat gariela.
- Baña, noiztik?

'QUANTUM MUTATUS AB ILLO'



_ Txo, txo, zer diñozu?
 —Aldaketa galanta egin dabela.
 Zertan?
 —Euskera berbe-teari buruz.
 —Zergaitik?
 _ Erriko izkuntza bearrezkoa zan Euskera bizirik iraungo ba'eban.
 — Eta, orain?
 — Bizi egin bear edo... txamarra

zaarra galdu dau. Baña, entzun nolako txamarra ederra zan:

"Jarraituko dot arrera be ipuin batzen. Ez noia agintzera urren-gokoa nungo euskeran egingo dodan, bear bada kiputxez, baña kiputxez egingo ba-neuke be, errikoi izan bearko litzake. Geroago ta ziurrago nago erririk barik euskera salbatzerik ez dogula. Errrianganako lokarriak apurtzea, akademismu utsezko euskera batera jotea litzake, ta akademismu utsa izango litzake euskeraren eriotza".

— Baña, nork idatzi dau ori?
 — Batuaren sortzailletako batek eta Euskaltzaindi Berriaren Idazkari nagusia urte askotan izan dan Juan San Martin'ek.
 — Nun?
 — Bere Kuliska Sortako ZIRIKADAK liburuan. Itxaropena Argitaldaria, Zarauz, 1960, zazpigarren orrialdean.
 —Txamarra, prakak eta oiñetakoak be aldatu dauz.

SALOME



— Dantzari trebea ei zan Salomé ori.
 Zazpi gonon dantzagaitik ei zan famatua.
 Gona edo gerriko estalkiak.
 — Banan kentzen ei ebazan...
 Nungoa zan Salomé?
 — Herodias eta here senar Filipo'-ren alaba. Herodias bizi-alarguna zan eta Herodes erregearekin bizi zana. Joan Bataia-

tzalleak esaten eutson ze, es eukala eskubiderik here anairen emaztearekin bizi izateko.

—Eta?
 —Preso sortu eben salatzailea. Ortan Herodes'en zorionak ospatu ebezen erregearen jauregian. Eta, an, sekulako dantzak egin ebazan Salomé'k

— Gerriko estalkien dantzak egin al ebazan?
 —Ez dakigu zertzuk; baña mundu gurtiak zutunik eta txaloka ekin eutson. Herodes bera be, zoraturik: "Eskatu nai dozun guztia eta emango deutsut".
 —Eta, zer eskatu eban?
 _ Amari galdetu ondoren: "Joan'en burua nai dot ementxe eta orain". Burua ebagi eta aspil batean ekarri eutsen eta Salome'k here amari eraman. Amak buruari miña atara eta orratzagaz zulatu.
 — San Juan suak eta Gabon suak, biak bat ei dira: eguzkiari eskeñiak...
 — Kristau aurreko garaietan, bai; orduan eguzkia gurtzen genduan jainko lez. Kristausanak erakutsi zigun eguzkia ez dala Jainkoa.

ZIÑEZKO EPAILLEAK ETA EPAI-LEGEDI **BERRIAK**

—Zer dok ziñezko epailletza ori?
 _ Errietan aukerutzen dira.
 _ Zertarako?

Ba ziñezko epaille oiek, errudun diran ala ez, salatuak, erabakitzeke.

—Eta, Epai-Legedi berri ori?

_ 1848'tik onera berritu gabeko Legedia da eta zuzendu bearrezko gauzak baegozan bertan; arrezkerro arazo berriak be sortu dira...

—Obeto ala okerrago?

Zenbait gauzetan au biguñagoa da; beste batzuetan, berriz, gogorrago.



BARTOLO ARROPAINGO

* * *

EUSKERA ETA BATASUNA



JOSEBA ARREGI ETA MARI KARMEN GARMENDIA BATERA DATOZ ALE IRUKOITZARI BURUZ

Mari Karmen Garmendia'k (DEIA 17-111-95) (ZER-maiatza-95) esan zuena, errepikatzen dator Joseba Arregui Jauna (DEIA 6-XII-95): alegia, Euskalerrria'n iru ele bearrezkoak dirala gaur-egun, Euskera, Gaztelera eta Frantzerara; alkarren eskubi-deak zaindu bear dirala eta alkarri begirunea izan.

Solidarritza bearrezkoa zala guztien artean, esan zuen Mari Karmen'ek. "La Consejera también se refirió al peligro cierto de confundir universalidad con uniformidad": gauza bat dala alkartuta egotea eta beste bat danok bat bakararra izatea.

Joseba Arregi jauna Garmendia andereñoarekin batera dator: "La armonía debe volver a reinar entre los hablantes de lenguas distintas. El respeto puede y debe imponerse a la agresión y el resentimiento. La idea de enriquecimiento recíproco, de la colaboración, de la convivencia en provecho mutuo, puede y debe sustituir a la de la competencia y la exclusión".

Orra gauza bitxia: Gaztelera eta Frantzerara ele-entzako eskatzen duten, bai bata eta bai besteak, begirunea eta errespetoa, ez diote Euskerari eskeintzen; ezta inolaz ere. Joseba'k aitutzen daua "exclusión" on norentzako da? Bere Batua ez dan Euskera guztientzat. Zoragarri.

Bitartean zer gertatzen ari da? Irakurri DEIA 7-XII-95, egun bat beranduago Joseba'k diona (6-XII-95) baiño: Donostia'ko erritarren artean Euskera galtzen ari da. Aurrera bearrean, atzeraka. Nork erakusten digu ori? SIADEKO, azterketetan berezia dan elkarteak. Noiz? Azterketa baten ondoren.

Ori Euskerazaintzak aspalditik esana dau: Batuak Euskera galduko dauala. Goitik beera indarrez sartutako Batua orrek. Ainbeste diru, gu guztion sakeletik ataratako dirutxuak, kostatzen dana... Aizkenean, batez... Euskera gutxiago erriaren aotan.

BARTOLO ARROPAINGO

ATZO ETA GAURKO EUSKERA IKASTE

Gaur egun euskera ikastera, ainbat jende joaten da, bai, milla-ka doaz: Gazte, ume, irakasle, ertzain, alkate, adiñeko funtzionari, ministru eta orain, gure Bilboko Gotzaina be joango dala uste dot nik.

Ikastea orain askoz errezago da, askori gañera, erakundeak ordaintzen deutse, beste asko, lanpostu obeago bat lortzearren edozein ordainketa egiteko prest dago, baña gero, ondorengo onuragarriarik ez badago, euskerarentzako txarrago eta eurei or konpon Mari Anton! Lenbailen ikastea da geienak gura dabena.

Orrexegaitik dago gure euskera maite egoera larri onetan. Ikasten eta irakasten dan guztia, ariñegi egiten da, aztertu barik, sakondu barik, biotzik barik, izkuntza, erri-izkera baño askoz geiago dala pentsatu barik. Izkuntzaren bidez, erri-nortasuna, sustraiak, erritarren izaera, bizi-moduak, oiturak eta beste gauza asko ere ikasi daitezke.

Auxe zan len ikasten genduana, batzutan izkutuan, beste batzutan etxetik urrutira joaten diru-babeslerik gabe baña beti gogoz eta miatasunez, ia guztien elburua, arbasoen izkera berreskuratzea eta gure gerokoei itzitea zan. Egia da, merezimendu guztia orduko irakasleengan egoana eta nik ori, Euskerazaleak Alkartean aurkitu neban.

Zer jazo da ba? Oraingoa, geurea ez dala, arbasoena be ez dala eta oraindiño bizirik dagonari gero ta kalte geiago egiten deusola.

Guk, amatxo talde bat osatzen dogu, danak ezker-aldeko eta enkarterrikoak, naiz eta gure neska-mutikoei ikastoletan batua irakatsi, gu lengo moduan Bizkaiko euskera ikasten gabiltz, geurea, ederra, jatorra eta onena dalako. Onen ezaugarri abesti au egin edo antolatu dogu, soñua ez da gurea baña itzak guk lortu gura doguna diño.

Soinuaren egillea, Simon eta Gardfunkel da eta Joan Baezek "Blowin'in the wind" abestiaz ospatu eban.

EUSKERAZ ETA ALAITASUNAZ

Amatxo talde txiki bat gara
askorik ez dakigula,
gure biotza eta gogoaz
ikasten ibiltzen gara,
naiz eta ori erreza ez izan
badogu itxaropena

EUSKERAZ ETA ALAITASUNAZ ABESTEN ETORRI GARA

Enkarterriko lurralde onetan
aspaldi galdu egin zan,
izkera eder eta polita
berbizitu gura doguna,
ikastea da gure asmoa
seme-alabak laguntzea.

EUSKERAZ ETA...

Erri onetan gure elmuga
maitasunez bizitzea,
danon artean egin bear dogu
erri bat obeagoa,
borroka, gudeak amaitzeko
anaitasuna bear da.

EUSKERAZ ETA...

Agintaritzta ta justizia
garbitzea lortzen bada,
gizon guztietako bizia
ez da izango ain latza,
gure auzokoari lagunduaz
pakea iritsiko da

EUSKERAZ ETA ALAITASUNAZ ABESTEN EGORRI GARA (BIR.)

PALMI

KANTU KANTARI

Zabal-zabalik aurkituten naz
itxaso urdin aurrean,
biotza urrez, ura ostiñez,
alkar mosuka aidean;
nire gogoak artu nai leuke
uridin dana ezpaneana,
eta illezkor biurtu gero,
itxasoa biotzean.

Itxas aundia dana da eder
Egillearen antzera,
eguzki goriz uda aldian
urre, zidar, dizdizeña;
aizeak egaz, gozotasunez,
uso zurien erara,
eztia dator ipar aldetik
laztan gozoak artzera.

Gure itxaso arrigarriak,
benetan, dira gogorak,
ekaitz artean burrukan dabilz
ur astun eta arkaitz arrak;
oñeztarriak dirdai asarrez
erretan dauz itxas ertzak,
sarri askotan, itxasontziak
iruntziz aize zakarrak.

Kantauri urak aundiak dira
baita be baliotsuak,
amaike lille euskal gizonek
urratuz, bertan, besuak;
neke artean lan egiñagaz
baltzitu jakoz eskuak,
ondra ederraz alikaturik
andre ta seme kutunak.

Itxas ertzean, beti, begira
artzain on dan abadia,
gogo onenaz opa izanik
onantzako jeurt aldia;
sardiña presku, bisigu berde,
pozik, da arrantzalia,
egun ederrez baketsu dator
portura itxasontzia

PAULIN



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

ALBISTEAK



—Cro-Magnon'etik zuzenean gatozen erria gara eta edozein gaietan sustarrak oso luze joaten dira.

— Erlijo-arazoetan be bai?

—Geure kobietako marrazki eta margoek diotenez, eiztariak giñañean, aztikeri egiten genduen, eizera joan aurretik.

—Zertarako?

—Mendiko animaliak atrapateko aztikerien bitartez: irudiari aztikeria egin ezkeru, animalia berari egiten zaio kalte.

— Eta, beti izan gara aztiak?

— Millaka urte pasata gero, artzai eta nekazari gertatu giñan. Artaldeak bedarra nai dau eta bedarrari aztikeririk egin ezin.

—Bedarrak eguzkia eta ura bear dauz.

—Une aretan euskaldunak here burua gora begira imiñi eban, goiko indarrak gurtzen: eguzkia, illargia, euria eta ekaitzak, iturriak eta ibaiak...

—Baita mendiak eta arbolak, be.

—Jainko txikiz bete ebazan bazter guztiak, eta izakiaren indarrei anima bana ezarri eutsen.

Ortik sortuko ziran ainbeste siniskeri eta oitura...

—Baita ikurrak ere: eguzkiarenak, illargiarenak eta abar. Era-so-aldiak be izan genduzen.

—Nundik?

— Europa aldetik; baña, artzai eta nekazari ziranez, animistak arrek be eta gizadiaren gurtzaille.

—Eurok ekarri eben lauburua?

—Bai, eguzkiaren irudi bezala. Ondoren erromatarrek agertu ziran eta europatarrek desagertu, jentillekin batera, eta ildakoi buruzko oitura asko, eta kultura-sail aundi bat utzi ondoren, auek be galdu ziran...

Ondoren etorri zan Jesus?

Bai, indar oien gañetik badala beste bat, erakutsi zigun.

POEMA UTSA

(Antton Elizegi'ren SUSTRAIETAN liburuan dagoen txori-malo bateri begira)

1) Txori-izugarri

2) Santu

3) Artista

4) Gizon

1. Txori-izugarri / txorimalo burua goian / baña utsa...

Itxurak egiten / esku utseri hegira...

Izugarri / eta uts...

Buru aundi / eta uts...



Utsaren ondorengo / i izugarri / giza-itxura eta uts...

Kilin-koloka / eta arro...

Jakin-muiñaren / itxura utsa...

Aize guztietarako / pinpilin-pausa...

Gizonaren mendeko / urterik-urte sekulako...

Izugarri / parregarri...

Izua eman nai / parra eragin...

Gizontxo. / Sorginkeri guztien ezaugarri...

Menderik-mende / San Juan goizeko intzeetan

aztikerien kutsua / daramak ik

ilargi betearen printzeetan / nabari

akelarre beltzeetan / mirari

Txori-izugarri.

2. Bat-batean / biziak ikutu dik

barnea / saltamatxingo

aizean igarri... / Gora hegira

jarri adi...

Buru-ganbara / zuloetan

argiak argi... / Gora hegira

jarri adi...

Buru-ganbara / zuloetan

argiak argi... / jo gain-

gañeko maillara / aztikerien gainetik

zeru-egarriz / egaka goruntz...

Arranoa iduri / eguzkiari begira...

Goiko jakinduria / kokatu da

ire animaren / muiñetan

Txori-izugarri / benetan

arrigarria / i.

3. Jakinduri / suspertzailleak

arama i / arte-mailetan....

Txori-izugarri / berriro

ekintzeetan / ageri.

Arte-agerpenak / beti

ari batean / segi

oi dute /naasi

giza-muiñetan / sorginkeria

t'aztikeria /goi-

jakinduriarekin /batera...

4. Gizona / beti bat

sekula / sekulotan...

Aal guztien zipu

izugarri eta santu

arte-egille

bizi guztien suspertzaille

izaki guztien ondatzaille

jaun / eta / jabe.

ALBISTEAK

—Bid, txo; emen ao zabalik ba'zoaz, eskukarak sartuko zatzuz aora. Irukote onen katilluetan be euli bana sartu jakez..D. Permin oso jantzia da eta onela diotza kamareruari:

—Txo, ekarri beste kafetxu bat, eulia erori da barrura-ta.

—Eta, Pototo'k?

—Arrek ez dau nai beste kafetxu bat ordaindu eta kollaratuaz eulia atara eta artun dau.

—Eta, Oto'k?



—Oto'k ez dau iñungo kezkarik eta (meta diotza euliari:

—Eulitxo, bildu ankatxuak, barrura zoziaz-da.

JAINKOAREKIN JOLASTU

(Entzundako ipuitxo bat)

—Goiz batean Santu bat agertu zan geure etxean. Amamak ikusi zuen kortan saltoka, umetxoak poztu naiean.

—Ori benetako Santu bat da. Zoaz berarekin, semetxo. Gizon arrek, bere

eskua neure sorbaldan eballa, onela galdetu eustan:

—Zer egin gura dok, semetxo?

—Ez dakit; zer nai dozu zeuk neuk egitea?

—Zeuk esan.

—Ba, neri geien atsegin zaidana jolas egitea da.

—Orduan, zer, Jainkoarekin jolastu nai dozu?

Ez nekien zer erantzun be. Eta, berak neuri:

—Ara, Jainkoarekin jolastu nai ba'dozu, ori gauzarik aundie-na izango litzake. Jende guztiak oso serio artzen dau Jainkoa eta aspertu egiten ainbesteko seriotasunarekin. Jolastu zaitze Jainkoarekin, seme!

LAPURREN AZTARNAK


—Geure atarian arrasto batzuek topa ditut.

—Nolako arrastoak dira?

—Eskillerako ateetan ere bai. Danetarikoak dira.

—Ona emen zertzuk imintzen dabezen:

SIGNOS DE ROBO EN DOMICILIOS I					
Casa deshabitada		Usar palanca		Nada interesante	1 X)
Casa ya robada		Propuesta para robo		Casa caritativa	1
Mujer sola		Na robar ni hacer dsko, niño subnormal	t	Muy buena	oOOP~
Inulll Insistir		Abren con cadena puesta	4011	Buena acogida si hablas de Dios	
Vacaciones	—	Comunidadcon guarda	L	Cuidado, perros	... ~
No robar, Invbldo	J _	Aaui nada	~--{~	Aqui se puede robar	
Rápido, vuelven pronto		Cuidado, pollcia	(Sólo viven mujeres	•



BADA

Zirko batean gizon indartsu baten premian egozan.

—Zertarako?

—Pixu aztunak jasotzeko.

—Eta?

—Bigaramonean agertu ziran Perurena'ren antzeko batzuek; baña, berunezko barra ura jaso ezin. Ondorengo egun batean, or nun datorren gizon melar argaltxu bat. Artun dau beruna eskukein, anka bat belauniko duela, iztar gañera eta garraxi egin zuen:

—Bada!

—Zer da?

—Iztarra auzita.



JOAN XXIII ELKARTEA ETA GOTZIAIK IZENDATZEA

(Vida Nueva. Urrillak 14.1995).

Gotzaien izendatzearen inguruan sortu dan iskanbillak Joan XXIII'garren izeneko Elkarte be esnatu dau.

—Eta, zer da Elkarte ori?

—Teologoen Elkarte bat. Jose Maria Diaz Alegria jesuitia da aren buru.

—Eta, zer diñoe ba?

—Lenengo eta bat auxen: Gotzai izendatzea Gotzaitegi osoaren arazoa dala, eurentzako danez. Eta, emendik sortzen dan arazoa ez dala Euskalerrikoa bakarrik, Europa osoarena, baizik.

—Zergaitik?

—Aizken aldi auetan izendatzen ari diran Gotzaiengaitik: Vaticano II'garren Batzar Nagusia ezkeroz, aurrera segi bearrean, atzeraka asi diralako

Emengo arazoa beste bat da, ala ez?

Baña, sustrai berdiñetik datorrena: Kristau-erriak ez dabela aalmenik beuren gotzaien aukerarik egiteko...

Toki guztietan be, alan da?

—Itxuraz, guzti guztietan ez. Enrique Martí Estevez, Suiza'ko Basel goitzaitegian, 23 urte auetan lanean arin dan abadeak dionez Basel'eko Elizan, gotzai izateko bertakoek aukeratzen dabez eta bertakoak dira beti aukeratu-takoak. Ondoren Erroma'ra bota, an izendatze-ko. Baña, beti eta beti, bertako semeak.

—Nork esan doutsu ori?

—Vida Nueva aldizkari orretan dakar, 22'garren orrialdean abade orrek

berak esaten dauana.

Eta amaitzeko, emen doakizue Irailla'ko 30'eko alean aldizkari berak argitaratutako txistia:

ARGIUNEAK

OLANO ETA INDURAIN ESPAÑOLAK

– Oraintsu biak mundu -txapeldun gerta dira.



– Or egon dira Telebista, Irrati eta aldizkariak etenik gabe.

– Bai, zer esan dabe?

– Ao batez, espaiñolak dirala esan dabe; bai batak eta bai bestiak.

– Eta, zer?

– Droga dala eta ez dala, 25 gazte atrapa dabezenian Marruekos'en, zer?

Zer?

– Aiek, berriz, euskaldunak. Eta, orixe egiten dabe beti, euren artean alkartuta bezala: Euskaldun batek zer-edo-zer egiten ba'dau, a espaiñola da; okerkerin bat tartean danean, orduan, a euskalduna da. Guri gaitz egiten Telebistak, Irratiak, aldizkariak... guztiak. Eta geu, iñozo iñozo, ao zabalik entzuten.

45 ZORIONTSU

– Aurtengo udaran Aita Santuak...

Emen esaten dabe, ez dala Aita Santua.

– Zer da, ba?

– Mutil zaar Santua.

– Ba, orrek, 45 Zoriontsu egin dauz.

– Nungoak?

Espaiñolak. Apaizak, erlijiosoak...

Zergaitik?

Gerratean il ebezelako, eta orregaitik, martiriak omen dira.

– Emen be il ebezen ba apaiz jatorrak euren eginkizunak euren errietan betetzen ari zirala...

Bai, baña...

Zer baña, gero! Geuretzat neurri berdiñik ez dago mundu onetan! Bestean bearko.



KARALUGARRI'KO EGIA

– Egi ori Oiartzun'en dago, egoalderuntz.

– Eta, zer gertatu da or?


– Urrillaren 12 emon deutse su ikaztegi bateri.

– Zertarako da ikaztegia?

– Ikatz-egurra egiteko. Berrogei egunez iraun bear sutan.

– Eta, gero?

– Gero 20.000 kilo ikatz-egur aterako dabez bertotik.



– Karalugarri orreri nik beste antz bat ataraten dautso.

– Zeren antza?

Kalagurri'rena. Euskaldunen iria zan Kalagurri (Calahorra) erromatarren garaian.

Auskalo. Nork daki?

SANTU BERRIA

– Gauza polita ikusi dot gaur bultzian.

– Zer ikusi dozu?

– Errotako Praisku eta biok perirako asmoz.

– Ederrik egingo zenduan arekin...

– Artan goazela, agertu zaigu poliziko bat esanaz:

– Dokumentazion!

– Zer diño onek?

– Dokumentazion!

– Ez dakit zer nai daben.

Orduan polizikoak bere txamarren egaltxoa jaso eta erakutsi deutso Praisku'ri poliziko ikurra. Praisku'k neuri:

– Orain be ba dogu santu berriren bat. Jeiki eserlekutik eta, patxara onenean, muñ emon deutso.



APOKALIPSIS LIBURUA

– 1900 urte bete ei dituz Liburu Santu onek.

– Testamentu Berriko aizkena.

– San Juan'ek edo bere eskolakoak idatzia.

Oso zaila eta gaitza irakurtzen.

– Esan-naia ikusten zailagoa.

– Urte oiek ospatzeko bildu dira Patmos'en.

– San Juan'en desterrua ugarte orretan izan zan.

– Baita, beste talde aske-independienteak ere.

– Iraillaren 23'tik 26'ra.

– Azken egunean egin zuten Liturji eder bategaz amaitu ebezen billerak.



BASKUNES

– Geuk geuri imiñitako izenik ez dakigu.

– Eta; erromatarren Vascones, zer da ba?

– Beste batzuek imiñitako izena.

– Vascones ez, baña Baskunes ei da lenengoa.

– Baskunes? Eta, nork imiñi euskun izen ori?

IRUGARREN MUNDUARI LAGUNTZEN (EUSKO JAURLARITZA)



Euskaldunen zuba (Peru' n).

IRUDI MINGARRIAK

Zoritxarrez ia egunero azaltzen dira Erri onetako komunikabideetan Irugarren Munduarekiko barri eta irudi mingan-iak.

Ulertezinako gertakizunak benetan.

Eta, ain urrun bizi arren, pentsa eragiten deuskue geure barrenean, beste itaun askoren artean, geure buruari onelakoak zuzenduz: zelan izan gaitekez gizasemeak ain biotz-gogorak? Ez ete dago arazo ain gordinak xamurtzeko eta konpontzeko biderik? Zer egiten dabe gaurko munduko gobernu eta agintari aginpidetsuenak arazo oneek konpontzeko? eta abar luze bat.

LAGUNTZA-ESKARIAK ETA ERANTZUNA

Euskalerrriak ez ditu begiak itxi Irugarren Munduko nazioen arazoen aurrean: 1985. urtean Euskadin lan egiten eben erakunde humanitarioak millaka firma bildu ebezan.

Lendakariak eta Legebiltzarrak bereala sortu eben 10.000.000 pezetatako partida bat, diru kopuru berbera onartuz urrenge beste iru urtetan.

1988tik ona Legebiltzarrak urtero onartu dau kopuru onen ugariaketa, eta, gaur, 1996.ngo aurrekontuetan 2.500 milloi pezeta onartu ditu Irugarren Munduaren aldeko ekintzetarako.


ZELAN BIDERATU

Erri onetako Erakunde Publikoen jokabide onen barri Erritarrak izan dabenean, itaun asko egiten dabez, adibidez, zelan bideratzen dira dirutzok, noren bitartez, zertarako, dirutzok eldu egiten ete dira eldu bear daben tokietara, zenbat gelditzen da bide erdian, jarraipenik egiten ete dau Jaurlaritzak, eta abar, eta abar.

Asteko auxe esan bearra dago: Jaurlaritzak Irugarren Munduaren aldeko proiektuetarako laguntzak eskeintzen dituela; berak gaur arte ez dau inoiz proiekturik bideratzen.

Beraz ONG (Gobernua ez diren) Erakundeen asmoak bultzatzen ditu subentzio bidez.

Erakunde oneek batzutan laikoak izaten dira, eta besteetan Eleizaren inguruko erakundeak dira.



Gasotxzerako ura (Kamerun' en).

PROIEKTOAK

1988tik ona erakundeon 500 proiektu baino geiagori lagundu jake. Mota guztietakoak ditugu: egoera larrietarako laguntzak, etxe bizitzak eraikitzeko, ospitalak edo/eta eskolak egiteko, ur bako auzoetarako kanalizazioak, taller txikiak, emakumearen promoziorako proiektuak, bidegin-tzak, zubiak, eta abar, eta abar.

Mundu guztian ditugu: Amerikan, Afrikan edo/eta Asian. Usterik gitxien dan tokirik berezietan; pentsakera, bizikera eta siniskera guztietako jendeentzat.

OMENEZ

LANAK AMAITU JAKOZ

Aspaldion ebillan motel gure Santi. Azkenengo illeetan ezin izan dau idazkiña ondo erabili eta here idazlan batzuk ezin izan doguz ondo ulertu. Orrek min emoten izan dausku guri, eta zalantza barik ez gitxiago berari. Illetako berbaldian Karmeldarren erki-buruak auxe esan eban: Jaungoikoagaz itun bat egin ebala 85 urtera arte idazten jarraitzeko. Eta on bete zan, baiña idaztea zan Santi'ren pozbidea.

Bere berbetan be ez zan agertzen lengo argitasunik, bere burua illuduta lez egoan, here ibillerea katxabea lagun eta ez bizkorra...

Deba'n, azkenengo batzarrean, urterillaren 27'an, iragarri euskuen oso txarto egoala: Samintasun aundiak menperatu ginduzan eta esangura aundiko isilaldi baten geratu gifian. Ez egoan orretarako ezelako erabagirik artubearrik. Berezko gauzea izan zan.

Arrezkero, noiz barria artuko zain egon gara, eta gaur eldu jaku, zezeillaren 11n. egunean.

URRENGO EGUNAK

Urrengo egunean DEIA egunkarian berari buruz idaz-1an eder batzuk irakurri al izan doguz. Eta urrengoan be bai, eta ZER onetan be gogoan daukagu. Zalantza barik, urrengo zenbakirako idaz-1an barriak etorriko dirala uste dogu.

Larra'ko lekaide-etxean egin zan here aide illetea, Bilbao'ko Gotzain izana, Larrea'tar Koldo Mirena buru zala eta abade ta lekaide asko beragaz batera.

Aita Santi, adiskide, agur.

** *

BERE IDAZLANAI BURUZ ZERBAIT

Ez da nire guraria orain, Aita Santi'ren lanak aztertzea edo zenbatzea. Ez, baiña zerbait esan barik iztea be ez litzake gauza egokia.

Aspaldiko urteetan izan dogun idazlerik ugarienetakorikoa dogu Santi. Beragaz batera beste asko aitatu bear-ko geunkez: Kerexeta, Zubikarai eta abar.

Idazteko berak artu dauzan arlo batzuk aitatu daiguzan:

Aldizkariak: Aldizkarietan idazten oso zalea izan

da gaztetatik asita eta berak irasi ebazan Karmel eta Olerki.

Gure ZER onetan idazle ugaria izan dogu eta esker ona agertu-bearrean gagoz, diruz sekula ezer ordaindu ez dautsagun ezkerero.

Idaz-lanetan gai asko erabili dauz: Ikuspegiak eta ibillaldiak, elertia, kondaira, fedea ta erlejiñoa, ta abar.

Itzulpenak: Lan aundia egin dau itzultzaile lez. Batez be lateratik eta gasteleratik egindako itzulpenak dira. Lan oneik batzutan bakarrik egiñak dira, beste batzutan lagunakaz batera.

Itzulpenak egiteko eskariak be joaten jakozan, batez be eleizbarrutikoak, eta ainbat lan egin eban orretan. Dana dala ez zan ain zalea olako lanetarako.

Olerkiak: Olerki-zalea izan da gaztetatik eta one-gaitik argitaratu eban MILLA OLERKI EDER, here liburu gogoangarria. Izan ebazan orduko agintariakaz gorabera garratz batzuk eta argitalpena baitu be egin eutsoen, baiña baitutako liburuak atzerrira bialdu ebe-zan agintariak eta andik zorionak emonez eskutitzen batzuk artu ebazan.

Olerkigintzari indarra emoteko sortu eban OLERTI aldizkaria eta urtero ospatzen eban Larra'n OLERTI-EGUNA, olerkariak saritxu batzuk emoteko.

Pozik alkartu gara an, Kristo-Errege'ren egunean lenago, beste egun batzutan gero.

Baiña zelako olerkaria zan Santi bera?

Arlo onetan ez dot agertuko neure iritxia, balio gitxiakoa litzake-ta, baiña bai agertuko dot Latxaga adiskideak Euskerazaintzaren batzar baten esana: Olerkari lez punterengoa dala, here baliorik aundieneko liburuak ez dala EUSKAL LITERATURA, here olerkiak baiño.

Elertia: Auxe da Santi'ren beste zaletasun aundi bat. Arrigarria da here EUSKAL LITERATURA bost aletan argitaratua. Idazleai buzu jakingarn ugariak aurkitu leikez or. Bere ta beste batzuren eritxiak be bai. Baiña ba-dago aita Santi'ren beste liburu bat, ikastoletarako egiña, Euskal-elertia deritxona. Liburu au ikastoletarako geuk eskatuta egin eban eta oso egokia da, baiña ez da erabilten. Zergaitik? Bizkaieraz eta atxe barik idatzita dagoalako. Non dago zuzentasuna! Non askatasuna!

Kondaira: Arlo onetan Ian gitxiago egin dau, baiña here bizitza-liburuak eta itzulpen batzuk or dagoz.

Beste batzuk: Ba-dira arlo orreitan sartu ezin daitezkezan beste liburu batzuk be, esaterako osasunari buruz eta abar.

OLAZAR'TAR MARTIN 'EK

ERDERA BI (EUSKALERRIAN)

ABERASGARRIAK

Munduko izkuntza guztiak dira gizadiaren aberastasunak. Gizakumeak esku-lanez egindako monumentu guztiak baiño ederragoak.

Eta ori munduko izkuntza guztiei-buruz egia ba'da, ¿nola ez da egia izango norbakoitzak here lurraldean dituan izkuntzei-buruz?

Adibidez euskaldunok, gauiregun Euskalerrian bizirik dauzkagun iru izkuntzei buruz? Euskerari-buruz, bai noski, baiña baita Frantzi'ko eta Españi'ko erdera biei-buruz? Orregaitik arek, euskerak, bezala, gure eraspene osoa merezi dute bi erdera auek ere.

Zergaitik?

—Euskalerrian itzegiten diralako;

—Euskalerrian, aspaldi ezker itzegiten diralako.

Bi oietako bat, gaztelera, Naparroa'ko, Aragoi'ko ta Katalauni'ko euskeraz mintzatzen ziran ezpaineel sortua!!!

IDATZI

—Cure egun auetan, euskaldunik geienak, bi milloi t'erdik, edo gaztele-raz edo frantzeraz itzegiten dutelako; Euskeraz, berriz, doi-doi bosteuneko urri batek! naitanaiez gaude beraz esatera bearturik, bi erdera oiek euskera aiña dirala gaurregun Euskalerriko izkuntzak.

—Itzezin ez eze, idalzi ere euskaldunik (i.?) geienek erderaz idazten dutelako. Idatzi ere ¿nola idatzi, gaiñera! Croi ditzagun beste askoren artean Pierre Lhoti, Chao, Unamuno, Ramiro Maeztu, Pio Baroja...

ARTU-EMONAZ

Munduan munduarekin bizitzeko, bi erdera oiek oso ederki datozkigulako. Are geiago, bear-bearrezkoak ditugulako! A! nola aundiagotuko litzaken euskaldunon aberastasuna, bi erdera oietaz gaiñera euskaldun guztiok Alemani'koa edo Inganderri'koa ere itzegiteko gauza ba'gaiña!

—Euskaldunek erdera ikasteak ez digu minik eman bear. Euskera ain euskaldun (¿?) gutxi jakitea da min eman bear digun gauza. Bosteunen bat milla, geienaz! Eta bosteunen bat milla oietatik, zenbat ote dira euskeraz errez itzegiteko gal? Erdiak? Eta erdi oietatik zenbat beti euskeraz itzegiten dutenak?

EDERRENA

iBadugula zer egiñik aski euskera bizkortu, ta, bizkorturik, Euskalerr (¿?) osora zabaldu naiean gabiltzanok, ostera Euzkadi dana Euskalerr billa-katu dadin!

Ori lortzeko, naitanaiezkoa dugu buru otzez, zintzotasun osoz, eta adimen argiz jokatzera. iEzertarako sekulan gezurrik esan gabe!

—Goroto guztiak utzi eta arrokeri danak aztu bearrak ditugu. Apaltasuna izan hear du gure jardunkeraren giroa. Izkuntzarik ederrena gurea dala arranditsu esanez ibiltzeak ez du gure izkuntzaganako gorrotoa sortzeko bes-terik balio. Nor bakoitzarentzat norberaren izkuntza izaten bait da ederrenetan ederrena.

ERAZTUNA

—Euskera babesteko eta —zabaltzeko— ez dezagun, arren, gezurrik erabili. Ez bait da egia euskera erderek il digutenik.

Nik badakit euskera ezereztu naiean bai Frantzi'ren aldetik eta bai Españi'ren aldetik egiña izan dala indarkeri zakar gaiztorik aski.

Euskera, ordea euskaldunen zabarkeriak il du.

Gure gurasoek ezagutu zuten ikastetxeetan eraztun iguingarri ura. ¡"Españi'k aginduta! ezarria, entzunik egongo zeranez.

Ori, ordea, gezurra da! Eraztun ura ez zuan Españi'k ezarri. Ez dakigu noiztik baiñan euskaldunek ezarria izan zan. XVIII mendean bazebillela badakigu, "Azkoiti'ko Zalduntxoek" eta garai artako beste euskaldun "argituek" atseginki adierazten ditutenez.'

ERDEREA

XVIII mendean ez zuan Euskalerrian Españi'k agintzen. Lege Zan-aren aroa zan ura, eta gure Lurralde bakoitzean, bertako Batzar Nagusiak —eta auen izenean Aldundiak— ziran agintzen zutenak.

Urtero-urtero "Extractos" izeneko tiburuetan ematen zuten "Zatdtxo" aiek beren enginkizunen berri. Ez naiz oroitzen zer urtekoa dan eraztun aren berri ematen duana. "Extractos" oiek birr-argitaratuak izan dira-ta. errez billatu dezazke gauza auetarako zatetasunez gaiñera astirik naiko ere baduanak. Nik ugari dut aurrenekotik, batere ez ordea bigarren ortatik.

Ez noa ni, ez orixe, eraztun ura asmatu zutelako euskaldun aiek gaitzes-tera. Soilki erdera ikasierazteko asmatu bait zuten, eta ez, iñolaz ere, umeei euskera aztuerazteko. Euskera lantzeko, bizkortzeko, eta sendo gordetzeko, erdera ikasierazteko aiña ez arduratu izatea da, gure agintari aiei eta

"Azkoiti'ko Zalduntxo" eta gaiñerako Jaun aundi, jakintsu, "Argitu" aiei aurpegira jaurtikio dietan pekatua.

Españiar izan ziran "Azkoiti'ko Zalduntxoek" euskaldun baiño geiago.

Ainzuzen, "lengua materna" dalako ori ikurrintzat artuta, ez zuten pake-rik izan, ordurarte latera bakarrik erabiltzen zan Españi'ko unibertsitateetan gaztelera, ots, "la lengua materna", ezarri zuten arte.

Gaztelera utsa erabili zuten Bergara'ko beren "Real Seminario" bikain artan ere. Eta, au bai lotsagarria!, ez zuan iñork Euskalerrian erabiltzeta ari-buruz txintik atera. Araba'ren egoaldero Armiñon'dik euskaltzale arabar ezezagun batek izan ezik.

Onek, "lengua materna"ko guzti ori ederki zegoala, idatzi zien, baiñan Bergara'n, eta Euskalerr guzian, Euskera zala "amagandiko izkuntza".

ETXEKO EUSKERA

Bai al dakizu zer erantzun zioten? Euskalerrian "La lengua materna" gaztelera zala; euskera, lengua doméstica" zala, ots, etxeko zokoan bakarrik erabiltzeko izkuntz arlorea.

Euskaldunon axolagabekeri ori izan da Euskera galdu diguna.

Ez eraztun ura ez beste indarkeri ori izan da Euskera galdu diguna.

Ez eraztun ura ez beste indarkeri guztiak, ez bait lirake euskera ondamentzeko gauza izango, euskaldunak —batez ere Dire emakume maitagarriak— euskeraz benetan arduratuko ba'lira.

Baiñan, tamalez, gure emakumerik geienek sukaldero katuarekin eta etxeko umentxo txikiekin bakarrik, euskeraz itzegiten dute. Euskera salbatzeko zer egin?

ZER EGIN?

Salbaturik legoke Euskera gure emakumezkoek euskeraz itzegitea gauza "elegantea" dala benetan oartuko ba'lira.

Ori ordea... Hola lortu?

Euskera zabaltzeko zer egin?

—Euskerarik ez dakiten emen-jaiotako-euskaldunei (¿?), apaltasun goxoz ikusierazi bearko diegu, jaiotako diran lurralde ontako euskeraren bikaintasun arrigarria, baiñan beraiek itzegiten duten erderarik iraindu gabe!

Ori da ba gutxiengo bati dagokion jardunkera bakarra: apaltasun guttiz jardutea. Eta euskaldunok Euskalerrian gutxiengo txiki bat gerala, ! ez bait dugu beñiere aztu bear!!!

GU EUSKALDUN

Abizen euskalduneko euskerarik-ez-dakiten-euskaldunei (i!) ganorabako egoera orren zentzurik-eza ikusterazi bearko diegu. Eztiki, gurekin ez baiña euskerarekin asarretu ez daitezten!

—Atzeritik etorritako erdaldunei, euskaldunok endakeri zaleak, ots, "razistak" ez guralako, emengotar errez biurtu daitezkeala jakiniñerazi bear diegu, euskeraz ikasten duan atzeritarra, Gernika'n jaiotako eusko-odol-utsezko-erderaz-itzegille bat baiño milla aldiz euskaldunagoa bait da.

—Danei, izkuntza guztiak zaizkigula aberasgarri munduan munduarekin bizitzeko, oroiterazi bear diegu, baiñan, munduan munduarekin GU bizitzeko, bat bakarra dugula bearezko: Euskera, euskera dalako gu euskaldun egiten gaituana.

EUSKERA

Milloika asko dira munduan frantzeraz —eta askoz geiago gaztele-raz mintzatzen diranak. Oso gutxi gera, berriz euskeraz itzegiteko gauza geranok. Baiñan, orra ba: munduko jakintsu guztiak guri inbiriz, kutiziz, begira-tzen diguten gauza bakarra, iEuskera da!

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (III)

AAL ERAZKO ADITZ-JOKOAK (Flexiones de modo potencial)

Ogei urtetik edo onantza –gitxi gora-beera– esakuntza barriak agertu dira euskeraren barrutian, oraintsu arte ez iñon eta ez iñoiz –nik dakidala beñi-bein– entzun eta erabili izan ez diranak.

Ona adibide batzuk: "Emen *ezin da* ezer esan". "Gaur *ezin gara* Bilbora joan". "Umeak *ezin dabe* pelikula au ikusi". "Kristau ikuspuntutik *ezin ditugu* onartu" (ARANZA-ZU, iraila 1978, 13 orr.) "Ur aundiek *ezingo dute* itzali maitasuna" ("Orduen Liturgia" Liburua, 922 orr.). "*Ezin zerate* izan Jainkoaren eta diruaren morroi" (lib. bertan, 763 orr.). Eta abar, eta abar.

Leen-leen esakunok olan esaten eta idazten ziran. "Emen *ezin daiteke* (*leiteke, leie*) pelikula au ikusi". "Ur aundiek *ezin dezakete* itzali maitasuna". "Kristau ikuspuntutik *ezin ditzakegu* onartu". "*Ezin zaitezteke* izan Jainkoaren eta diruaren morroi". Eta abar, eta abar.

Zer jazo ete da aldakuntza nabarmen au gure euskerara etorteko?

AAL ERA aditzaren garrantzizko zati bat da. Eta *aal* erazko adizkiak bitarikoak doguz euskeraz.

Ikusi:

Ibilli aal naz - Ibil(li) naiteke = Puedo andar.

Ezin ibilli naz - Ezin ibil(li) naiteke = No puedo andar.

Ezin dot lorik egin. - Ezin daiket lorik egin = No puedo dormir.

Eroan aal dot = Eroan daiket (neike) = Lo puedo (podría) llevar).

Ezin croan dot - Ezin croan daiket (neike) = No lo puedo (podría) llevar.

Aor, bada: azterkizun eta jakinkizun doguna auxe: esakuntza bitzuok adierazkizunaz eta esanguraz bardiñak etc dira? Zein bata, zein bestea adiera beratan erabiltea zuzena eta jatorra ete da euskerarentzat?

Gramatikalarriak eta jakintsuak, jakingai onetan eritxiak emokeran, ez datoz bat. Azkue aundiarentzat, adibidez, ez dago bape alderik. Adiera eta esankizun ber-bera dabe zein batzuok, zein bestetzuok, zein aide batekook, zein bestekook. "Mis compañeros notan alguna diferencia que yo no percibo", dirausku berak (Morf., 788 orri., oarra).

Seber Altube ospetsuak, ostera, auxe idazten dau: "El pueblo no contaminado del habla cervantina nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones (Observaciones al tratado de Morfología vasca, 127 orr.).

Nork ete arrazoia?

Ni-neu Altuberen aide nago oso-osorik. Berak arrazoia ebana begibistakoa da. Azkue jauna, euskeraren arloan ain jakintsu gurtiz bardinbakoa izanda, eta esakun bitzuon artean daukagan aldeaz eta diferentziaz zelán ez zan konturatzan ez dakit. Sekula ulertu ezin izan dodan gauzea niretzat orixe. Eta ulertuko bez.

Lantxo onetan Altubek irakatsia argitzen eta azaltzen saiatuko naz, eta on adibideen edo ejenpluen bitartez batez be egingo dot.

– Ibilten asi eta, ozta-ozta bada be, bazabizala ikus bada-gizu, "*Ibilli aal naz*" esango dozu, aal dozula zeuk orduantxe ikusten dozu eta, edo "cuando la potencialidad está puesta a prueba", Altube maixuaren berbak aitatu.

– Lotara joan eta buruko miña daukalako-edo, lorik ezin eginda badago, "*Ezin dot lorik egin*" berez-berez esango dau, ezin dauala egin berak orduantxe dakus eta.

– Kontu bat ataraten ekin eta ekin egin eta atara barik itxi badozu, "*Ezin dot atara*" ederto esanda dago, zeuk une orretan ikusi dozunez.

– Bizkarrean eun kiloko lepokadea artu eta larri-larri izanda be, bazoazala ikus badagizu, "*Eroan aal dot*" pozez beterik esango dozu.

– Egun guztian lan-da-lan egin bear dauanak bazkalostekoa egiteko astirik ez daukalako, "*Gaur ezin daiket (neike, nei) bazkalostekorik egin*" esan bear leuke euskera jatorrez, eta ez "*Gaur ezin dot bazkalostekorik egin*".

"*Ezin jan det*" eta "*Ezin jan dezaket*" esaldien artean bada alderik, Azkuek ezetz esan arren. Jaten asi eta aoran min daukazulako edo ezin jan badozu, "*Ezin jan dot (det)*" ondo esanda dago. Nonora joan bear daualako edo, jateko astirik ez daukanak, "*Ezin daiket (neike, nei) jan*" esan bear dau zuzen berba egiteko.

Berba batez eta laburkiro: aala edo eziña norberak ikusi izana, garrantzi aundiko araua da noiz adizki bata eta noiz bestea erabili bear dan jakiteko.


Seber Altube jakintsuak irakatsiari beste ikusbitarte edo ikuspuntu batetik hegira bagakioz (adizki zaarra = begiratzen badautsagu), ulergarriago edo ager dakiguke bearbada.

Itsu batek *ezin dau* ikusi, ikusmena edo "possibilidades físicas" falta jako eta. Baiña ikusmena euki ezkeror, ezin ikuste on beste gauza bategaitik bada, orduan "*ezin daike (leike, lei) ikusi*" esakuna erabili bear litzateke euskera jatorrez.

Adibidez:

"*Pelikula au ezin dogu ikusi* edo *umeak ezin dabe ikusi*" ez dago zuzen esanda euskeraz. Ikusmenik ez dogulako ez da ezin ikuste ori, beste arrazoi bategaitik baiño, konbeni ez dalako edo...

Guzti au dala eta, "*emen ezin dogu itzik egin*", "*ezin da ori esan*", "*ezin dogu guzurrik esan*", "*ezingo gara Gernikara joan*" eta onango esakuntzak sasi euskeraren esakun ustelak dira nire eritxiz (*nire eritviz* diñot). Itz egiteko eta guzurra esateko aalmena edo "posibilidad física" badaukagu, eta berbarik ezin egite ori edo guzurrik ezin esate ori beste zoezegaitik da.



— Erromatarren aurreko, europeotarrak.
 —Aien menpean be egon giñan?
 —Bai, milla urte gixienez Araba eta Naparroa.
 — Eta, zer esan nai

dau Baskunes berbak?

—Aundiak edo bestela, arroak.
 —Naiko arroak gara, bai. Goi-arro.
 —Baskunes'etik sortu ei zan Vascones.
 —Eta, Vascones'etik dator erderazko Vascon?
 —Baña, txarto. Vascones askorentzako berba da; bakarra danian, berriz, Vasco bear dau eta ez Vascon. Vasco berbak, irugarren deklinabidekoa da latíñez eta plurala egiten dau Vascones. Beraz, itza singularrean Vasco bear dau eta ez Vascon.
 —Eta, Vasconice zer da?
 —Vasco'en erara eta ortik atara da erderazko Vasconice.
 —Eta, Vasconizata?
 —Vasco'en erara aldatu dana eta ortik sortu dau erderak Vascongada berbia: benetako Vascongada Gipuzkoa da, Vascones'en berbea artu ebalako; baña, Bizkaia bereakin jarraitzen dau eta ez da sekulan Vasconizata izan eta izango, orain Batuak egiten ez ba'dau.

Vascones da guztion izena?

—Naparro eta aruntzakoak, Ebro'ko ibarrean zear, ziran Vascones. Naparrotik onuntz, Deva'ko ibaiararte ziran Varduli; Deva'tik Nervion'era, Caristi; Nervion'dik Santander aldera, Autrigoni. Onek be, erromatarrek imiñitako izenak doguz.


CADENA Y ELETA, GOTZAIA

—Gotzai au naparra zan, Vascones'en artekoa.
 —Eta, zer?
 — Baña, anima zearo goian ebal.

Zergaitik diñozu ori?
 Laño artean bizi zalako.
 Zer egin eban ba ortarako?

Euskaldunei izen euskaldunak imintzea galarazi.
 —Franco'ren garaian?

—Urte askoz aurrerago; Franco'ri bidea erakusten.
 —Noiz.
 —1910'eko Otsaillaren 4'ean.
 —Ori dok astakeria, ori!
 —Astoari bakean laga; au gotzai zan.



IZAKI ILLA

(Igartutako arbola baten argazkiaren aurrean).

Bizirik itzan
 bide errezetik
 bidea ebillan...

Bat-batean
 illuna jo dik
 ire lurraldean...
 Illunak eriotza
 dakar berekin...
 Forma utsak,
 forma beltzak...
 Itxurak
 bizirik-eza...
 Utsa.

Korapilloa barnean
 adarrak billutsik
 naasketa batean...
 Bidetxigorrak
 ugari mrendian
 illuna lañopean...

Biziak dirau
 azalpean...
 Illunak
 argia egarri
 utsak
 zera egarri
 biziaren ames
 biziak errez
 bait darama
 bere zailtasuna...
 Tximistak
 jo du
 arbola...
 Mendingian beera
 laiñoa...
 Amesetan gogoia...



INDARKERI BERRIAK

"Zaarrak berri" dio esaerak.

Modak ere alan izaten dira nere amamak dionez.

—Zer moda?

—Edozelakoa. Ondo gabeko saku baten antza ei du modak.

—Gañetik sartu eta azpitik atara?

—Azpitik atara eta gañean imiñi. Orrelan lengo gauza zaarrak berriro modan. Indarkeria be bai. Hitler'ek egindako okerkeri guztiak datoz berriro modara.

Cain'ek bere anaia il eban ezkeroz, alan izan da beti.

Alan dirudi; bañan uste genduan amaitu zirala betirako.

Bai, oba, alan ba'litz.

IRU EULI

—Bapo bazkaldu ondoren, or doiazak Oto, Pototo eta On Permin kafetxo bat arztzera.

—Nun zan ori?

Errioxa aldean. Bero ere badago eta euliak dabiltza multsoka aidean.

Ortik sortuko zan a, erderazko esaera "en boca cerrada no entran moscas".



EUZKADI-BARRUKO ENDAKERIA

Zuzendari Jauna:

Arrazakeriari buruz gaur egun, asko eta asko esaten da eta esaten dan guztia zentzuzkoa da.

Arrazakeriak gizakia, dollor egiten dau, baña kontuz!, soñekoak ez urratu! euskaldunen artean be badogu eta.

Ez arritu lagunok, benetan diñotsuet. Euskalerriko irugarren mundukoak, Bizkaitarrak gara. Ez dozuela ziñisten? Ara adibide batzuk:

Kirol arloan: Zelako jokabidea ikusten dogu beti eta betiko Gipuzkoarren? Bizkaikoak eurekaz anai-arremana betiko izan dogu, Gipuzkoarrak ostera, arranguraz, ezezenaz eta bekaizkeriaz ikusi gaitue, zergaitik? Atletikaren jatorriagaitik be bada?

E.T.B. arloan: Zenbat egitarau ikusten dogu Bizkaia eta Bizkaikoen aurrerapideaz? zenbat aurkezleri Bizkaitar eta Bizkaieraz aurkezten? Gipuzkoeraz ostera gero ta geiago ikusten dogu eta ez Gipuzkoerarik garbienenean ain zuzen be.

Euskaldunok, batuaz baña gipuzkoeraz entzutea gurago dogu baña zergaitik ez dautsoe Bizkaierari aukera bardiña emoten? Bein batean, Bizkaia Irratiko esale bat ikusi neban, onek irratian Bizkaiera eder-ederra erabilten dau beti baña egun aretan E.T.B.an batuaz esaten eban eta batuaz esaten beartuta aurki. Ba dakigu be an bertan, Bizkaieraz beba bat sortzen danean egitamua edo azalkisuna geldi-arazten dabela.

Kultur arloan: Zer egiten dabe kultur-arduradunak Bizkaieraren aide? Itxurea garbitzeko, 1970.netik 1976.nera gitxi gorabera EUSKERA BIZITIK irakasbide Bizkaieraz argitaratzeko bai-

mena emon eben baña urteetan zear, euren on-iritiaz, ugaritu eta obeagotu egin bearrean, gitxituz joan da desagertu arte. Gaur egun elduak edo adiñekoak Bizkaiko euskera ikastea gura ba dabe, ez dabe Bizkaierazko metodorik, ez irakaslerik aurkituko bat izan ezik: Bilboko EUSKERAZALEAK ELKARTEA.

Politika arloan: 1a alderdi abertzale guztietan, ardura-aginpidetan, naiz eta Bizkaia ordezkaturik, Gipuzkotarrez inguraturik gagoz. Ez ete da on Bizkaitarrak aldentzea?

Komunikabide arloan: Askok, Euskalerrin osorako danean idazkera bakarra izan bea dala diño, danok ez gagoz ados baña tira... Eta Bizkaierako danean, zergaitik ez indartu gure euskalkia? Gure garraioetan, irratietan, errietako igarkietan, aldundi eta udaletxetako idazkietan e.a. Beste aldetik, Bizkaikoak baita errudunak gara.

PALMI

* * *

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.